

• ASTERKO GAIA •

LORE AGIRREZABAL

Okupazioa

Etxe hutsetan bizitzeko alternatiba ugari

LORE AGIRREZABAL

Etxea eta bizitza, biak lotuz izendatzen du euskarak gizakiok bizitzeko hartzen dugun lekua. Askotan, ordea, esanahia eta errealitatea ez dira bat etortzen, hutsik dauden etxebizitzetan bizitza gutxi izaten baita. Elkartzen mugimenduaren arabera, Euskal Herrian 255.000 etxebizitza baino gehiago daude hutsik eta ehun mila pertsona inguruk dauka etxebizitza beharra. Etxe hutsak okupatu eta horiei bizitza ematea, ordea, Hego Euskal Herrian delitua da 1996az geroztik. Dena den, horrek ez du okupazio mugimendua apaldu.

INGURUA ETA BIZILAGUNAK errespetatzen ez dituzten gazteak. Hori da komunikabide batzuek okupazio mugimenduaz zabaldu nahi izan duten irudia. Baina okupazioak okupatzaileak adina aurpegi ditu. Okupatze-ko moduak, lekuak eta arrazoiak, nahiz bizitzeko erak desberdinak dira.

“Ez gara alokairua ordaintzen ez duten okupa *mugre* eta *zorritsuak*, hori baino gehiago da hau; bizimodu bat da”, dio Anek. Gasteizko Kutxi 103 etxe okupatuan bizi da Jaime eta beste bospasei lagunekin batera. Lehenago Aldabe auzoko etxe okupatuetan bizi ziren biak. Han ezagutu zuten Uraitz.

Uraitz Birgarabarrenen (Araba) bizi da gaur egun, Miren, Uxo, Iñigo, Eneritz, Josu eta Julenekin batera. Zortzi urtean hutsik egon zen etxea okupatu eta bertan bizi dira 2005eko azarotik.

Nagore Birgarakoen laguna da, eta bera ere etxe okupatu batean bizi izan da bi urtez Berlinen (Alemania). Han Jan eta honen alaba Lini ezagutu zituen, okupak hauek ere.

Guztiek bizimodu eta esperientzia desberdinak dituzte kontatzeko, baina denak bat datoz oinarritzko zerbaitetan: bizitzeko modu desberdinak daude eta bakoitza libre da nahi duen bizimodua aukeratzeko.

Okupazioa herri txikietan

1920an 21 biztanle bizi ziren Birgarabarrenen. 1930ean 34, 1970ean 15, 1983an 6, 2005ean 2 eta orain 9. Felisa eta Maria Ester ahizpak bakarrik bizi izan dira zortzi urtean, baina duela bi urtetik zazpi bizilagun dituzte ondoko etxean. *La Central* deitzen diote etxe horri, garai batean zentral elektrikoa izan zelako. Baina Birgaragoiengo gazteek Bekerekekoen etxea bezala eza gutzen dute. Izan ere, duela hamar bat urte Bekereke antzerki taldeko kideak bizi ziren bertan. Artean jabetza pribatua zuen, baina gaur egun Arabako Foru Aldundiarena da. Birgarabarren erdibitzen duen errepeidea egiteko etxearen

zati bat bota behar izan zuten eta desjabetu ostean, Diputazioa egin zen etxearen jabe. Bi solairuko etxea da: behean sukaldea, egongela, bainugela eta bi logela ditu. Goian, lau logela dauka.

Miren, Uxo, Iñigo, Josu, Eneritz eta Julen Gasteizen bizi ziren ikasle pisuetan, baina zenbait urtean horrela bizi ostean okupazioa jotzea erabaki zuten. Batetik, bidegabea iruditzen zitzaien Gasteizen 10.000 bat etxe huts egonik hainbeste etxe berri egiten jarraitzea. Bestalde, alokairuaren prezioak baldintzatutako bizimodu harekin ere ez zeuden gustura, eta beste bizimodu bat hastea erabaki zuten. Bide horretan ezagutu zuten Uraitz.

Birgarabarrengo etxe hutsera iritsi zirenean dena hankaz gora aurkitu zuten. “Utzita zegoen. Teilatuko leihoak irekita zeuden eta gu etorri aurretik zortzi urtez hutsa egon zenez, dena izorratuta zegoen. Bekereke antzerki taldekoak egon ziren aurretik eta haien txosten eta lan piloa eta arropa mordoa zegoen lurrean”, azaldu du Iñigok. “Hala ere, sukaldea nahiko ondo zegoen, hozkailua zeukan, beheko sua ere bai eta komunean konketa falta zen baina segituan jarri genuen. Uraren fosa septikoa beteta zegoenez, hustu egin behar izan genuen”. Iturriko ura ere bazeukan, baina etxean sartu eta pare bat egunera alkatea etorri zitzaien ura herrikoa zela eta herritarren artean ordaintzen zutela esanez. Kontagailua jarri zuten eta harrezkero gastatzen dutena ordaintzen dute. Uraitzek dioenez, inolako arazorik gabe onartu zuten alkateak eskatutakoa: “Gu ere herriko parte garenez, ondo iruditzen zaigu ordaintzea. Egia esan, guk ez dugu hutsetik bizi nahi eta zerbait ordaindu behar bada horretarako prest gaude”.

Lanik handiena teilatuak eman ziela gogoratu du Uxoak. Itoginez beteta zegoen eta dena berritu behar izan zuten. Negu osoa goiko solairua erabili gabe pasa zuten, beheko logelan guztiek elkarrekin lo eginez. Martxoan inguruan konpondu zuten teilatua; teila guztiak kendu,

MATTEO JATETXEA



Ugaldetxo auzoa, 11
20180 Oiartzun

Tel. / Faxa: 943 49 11 94

e-posta: restaurantematteo@telefonica.net

web orria: www.restaurantematteo.com



Okupazioa

poliespana jarri eta berriro dena teilekin estaliz. Teilak Apellanizen lortu zituzten, berritzen ari ziren etxe bateko teila zaharrak aprobetxatuta.

Erosi vs berrerabili

Teilatua bezala, etxeko ia gauza denak ere birziklatutakoak dira. Horretako pintura berrerabilitakoa da eta uraren berogailua Emauseko Traperoei erosi zieten 18 eurotan. Ahalik eta gauza gehien aprobetxatzen eta berrerabiltzen dituztela dio Inigok. “Inguruan behar ez den diru mugimendua dago. Hartu, bota eta berria erosi. Hori da egungo joera. Soldatak gastatu eta zabortegeak betetzea besterik ez da lortzen horrela”. Mirenen iritziz, dirua bizitzeko beharrezkoa da, baina bere neurrian. “Hemen inguruan ez dago ia dendarik, jende gutxi bizi da eta benetako balioa zerk duen ikasten duzu”. Modu batean edo bestean, gizarte honetan jende gehiena kontsumoaren gurpilaren barruan bizi dela, baina ihesbideak eta alternatibak badaudela uste dute.

Kontsumoa eta jabetza pribatuarekiko oso jarrera kritikoa dute Birgarakoek. Uraitzen iritziz, gizarteak balore batzuk txertatzen ditu –horien artean jabetzarena–, eta bizitzeko beste modu batzuk ez ditu “normaltzat” jotzen. “Nik ezagutzen dut babes ofizialeko alokairuko etxebizitza tokatu zaion jendea eta hartu ez duena, etxea erosi egin nahi zuelako. Etxe hori berea dela dioen paper bat nahi du

jende askok”. Horrez gain, familia osatzen has-teko lan finkoa eta etxea eduki beharrik ez dago, beste aukera batzuk ere badaudelako. Mirenek ere bat egin du Uraitzekin. “Nik uste dut hau bizitzeko beste modu bat dela, eta horrela bizi den gero eta jende gehiago ezagutu dut. Jende nagusia ere badago, haurrak izan eta etxe okupatuetan bizi dena. Kontua da horren inguruan ez dela hitz egiten. Gizarteak eredu bakarra erakusten du eta hortik ezin daiteke irten, eta egiten baduzu, gaztea zarelako edo buruan txoriak dituzulako dela esaten dute”.

Aldarrikatzeko modu desberdinak

Gasteiztik Lizarrarako (Nafarroa) errepide nagusiaren ondoan dago Birgarako etxea. Baina jakin ezean, ez da nabaritzen okupatuta dagoenik. Ez da okupazioaren ikurrik, ez pankartarik ikusten. “Egunero bertan bizi-tzen aldarrikatu eta erakutsi nahi izan dugu okupazioa bizitzeko modu bat dela eta guk hemen bizimodu normala egin nahi dugula. Agian, hiri batean pankarta bat jartzeak badu bere zentzua, baina hemen oraingoz ez dugu horren beharrik ikusi”, azaldu dute.

Ane, Jaime eta Txiki bizi diren Gasteizko Kutxi 103 etxea, berriz, pankartaz josita dago. Jaimek azaldu duenez, hasieran ez zuen oso argi ikusten okupazio hura errebindikatzeko beharra. Baina Euskal Herrian etxebizitzaren egoera nola dagoen ikusita iritziz aldatu zuen.

Hasierako argazkian eta beheko honetan, Birgarabarrengo etxea kanpotik eta barrutik.





Gasteizko Kutxi 103 etxebizitza.

“Etxebizitzak gero eta garestiago daude, eta alokatzen diren logelak ere oso garestiak dira. Horrez gain, etorkina izateagatik ere zailagoa da alokatzeko etxe bat aurkitzea”.

Jaime mexikarra da. Bolada batean Madril, Bartzelona eta Gasteiz artean bizi izan zen, baina ez zeukan etxerik. Gainera, berrehun euroren truke ezagutzen ez zuen pertsona batekin logela banatzea zen zuen aukera bakarra, eta ez zuen atsegin. Orduan, Aldabeko etxeak okupatu zituzten lagun batzuek logela bat eskaini zioten. Hasieran hiru hilabeterako izango zela uste zuena, azkenean urtebete luzatu zen, etxea desalojatu zuten arte. Aldaben ezagutu zuen Ane eta orain bizilagun izaten jarraitzen dute Kutxi 103an.

Desalojoaren mamua

Birgarabarrenge etxea 2005ean okupatu zuten eta orain arte ez dute inolako arazorik izan. Aurtengo udaberrian, afaltzen ari zirela bi miñoi (Arabako foru polizia) sartu omen ziren etxean eta identifikatu egin zituzten, baina izenak hartzeko agindua jaso zutelara eta hori betetzen baino ez zirela ari adierazi zieten. Bestela, Birgarabarrenen dituzten bi bizilagunekin (Felisa eta Maria Ester) oso ondo moldatzen dira eta Birgararagoiengo biztanleekin ere ez dute arazorik izan. Azaldu dutenez, etxea okupatu zutenean idatzi bat atera eta Birgarabarrenge eta goiengo herritarren artean zabaldu zuten beren asmoen berri emateko. Ez dute inoiz bertan jarraitzeko eragozpenik izan.

Aneren esperientzia bestelakoa da. Gasteizko Aldabe auzoko etxeak okupatu zituenetako bat da bera. Okupazio hark oihartzun handia izan zuen komunikabideetan, baita desalojoak ere. Gazte haiek hutsik zeuden lau

“Gizarteak eredu bakarra
erakusten du eta hortik ezin
daiteke irten, eta egiten baduzu,
gaztea zarelako edo buruan
txoriak dituzulako dela diote”

MIREN, OKUPA

etxebizitza okupatu zituzten 2004an. Gomez de Seguratarrenak ziren, Gasteizen etxebizitzaren negozioan oso ezaguna den familiarenak. Anek azaldu duenez, hasieran ekintza sinbolikoa izango zela uste zuten, baina luze iraun zuen. “2004ko ekainean sartu ginen etxe haietan. Eraikinak zazpi solairu ditu eta guk bosgarreneko eta seigarreneko bana eta zazpigarreneko biak okupatu genituen. Beste etxebizitzetan, batez ere adineko jendea bizi da eta antzinako errentako alokairua dute gehienek”.

Okupatu eta astebetera udaltzainek zazpi lagun identifikatu zituzten, baina beste ezer gertatu ez zenez, “bizimodu normala” hasi ziren egiten eta azkenean urtebete iraun zuten bertan. Jabeekin eta abokatuarekin bilera batzuk izan zituzten eta auzo elkartearekin elkarlanean ere aritu ziren. “Etxebizitza haiei erabilerarik ematen ez zitzaaien bitartean auzo elkarteak kudeatzea proposatu genuen, etxebizitzak auzoan beharra zuen jendeari utziz. Azkenean jabeek pikutara bidali gintuzten. Gerora, hasieran identifikatu gintuzten zazpi lagunentzako zitazioa iritsi zen eta epaiketa izan genuen usurpazio delituagatik”. Handik hilabetera-edo, desalojatu egin zituzten. Udaltzainak goizeko lauetan iritsi ziren eta barrura sartzeko hiru horma bota behar izan zituzten. Han zeudenak atxilotu eta kanpoan zeudenak identifikatu egin zituzten.

Horren ostean, beste epaiketa bat eduki zuen Anek desobediencia eta desordenengatik.

Handik irten ondoren, Aitzogile kaleko etxea hartu zuten Ane, Jaime eta beste bost lagunek. Etxe horren jabea Santa Maria Katedralaren Fundazioa da. Tartean Udala, Diputazioa, Vital Kutxa eta Gotzaintza daude. Udalarena bakarrik ez denez, eta jabetza pribatukoa ere ez denez, desalojatzea zailagoa dela azaldu digu

Anek. “Oraingoz, ez digute ezer ere esan, eta ez dira sekula etorri”. Zazpi lagun bizi dira bertan eta, dagoeneko, urtebete baino gehiago pasatu da okupatu zutenetik.

Desalojatzeko arriskuagatik, okupazioa behin-behineko bizimodutzat jotzen da. Iraunkortasuna ez da ziurra. Aneren iritziz, ordea, “segurtasun falta okupatuta bizi ez direnek ere badute. Ia denak daude lan prekarioekin, aldi baterako lanekin, pisua ordaintzeko gai izango ote den jakin gabe... Gerta liteke bat-batean etorri eta gu hemendik botatzea, baina badakigu prozedura judicial bat dagoela aurretik eta horrek ere bere denbora eramaten duela”.

1996. urtetik, Espainiako Zigor Kodeak usurpazio delitutzat jotzen du okupazioa. Ordura arte, Kode Zibiletik prozesatzen ziren

BIRGARABARREN



BIRGARABARREN



BIRGARABARREN



Birgarabarrengo etxebizitzan oso desberdina da hasieran eta konpondu ondoren gelek hartu duten itxura.

okupazio auziak, eta horrek izugarri mantsoztzen zuen desalojoa. 90eko hamarkadan etxebizitzaren prezioak garestitzen hasi ziren eta okupazioak gora egin zuen. Zigor Kode berria onartu zenetik, ordea, desalojoen prozesua izugarri erraztu da. Hala ere, etxea desalojatu ostean epaileek kasu gehienak artxibatu egiten dituzte eta gutxitan ezartzen dira usurpazio delituak aurreikusten dituzten zigorrak.

Alemanian hausprojezt-ak

Alemanian, legearen arabera, Berlingo eremuan okupatutako edozein leku 48 ordutan desalojatu daiteke epailearen agindurik gabe. 48 orduak pasatu ostean, ordea, epailearen agindua behar da eta zailagoa izaten da desalojatzea.

Jan eta Lini aita-alabak Berlingo New Yorck *hausprojekt*etan bizi izan dira 2005etik. Nagorek, ordea, beste etxe batean ezagutu zituen lehenago, Yorck 59 *hausprojekte*an. Lini etxe hartan bizi zen txiki-txikitatik, beste hainbat guraso eta haurrekin batera.

Hausprojekte etxe okupatuak dira, baina gehienetan etxearen jabearekin adostutako alokairua ordaintzen da. Janek azaldu digunez, 80ko eta 90eko hamarkadetan Alemania ekialdean

okupazio mugimenduak indar handia izan zuen, berrehun bat etxe okupatu egon ziren. Baina gero guztiak desalojatu edo ilegalizatu zituzten. Gaur egun, Berlingo senatuak gogor egiten du okupazio mugimendu berrien kontra eta oso etxe okupatu gutxi geratzen dira, *hausprojekt* erako etxeak dira gehienak.

Jendea modu kolektiboan bizi da *hausprojekte*tan. *Wohngemeinschaft* (bizitzeko komunitatea) esaten diote bizimolde horri. Hainbat lagunentzako bizileku izateaz gain, zenbait gizarte eragilek bertan izaten dute egoitza. New Yorcken, esaterako, 30 bat lagun bizi dira (haurrak, gazteak eta helduak), bost bat erakundek dute bertan egoitza, eta Udalaren diru laguntzarekin beka eskuratu duten zenbait artistek ere bertan dute tailerra. Eraikinaren izen ofiziala Bethanien da, baina okupatu zutenak Yorck 59 izeneko etxe okupatutik desalojatu berriak ziren eta New Yorck izenez bataiatu zuten Bethanien. Eraikina monumentu nazionala da, 1848an eraikitako gaztelu itxurako ospitalea.

Hausprojekt gehienak legezkoak dira eta alokairua ordaintzen dute. New Yorck, ordea, une honetan, akordiorik eta estatus legalik gabe okupatuta dagoen bakarretakoa dela esan digu

LANDER ARBELAITZ



LANDER ARBELAITZ



2007ko irailaren 23a

ARGIA

10

Goiko irudietan, Berlingo *hausprojekt* bat. *Hausprojekte* etxe okupatuak dira, baina gehienetan etxearen jabearekin adostutako alokairua ordaintzen da.

Nagorek. Okupatu zutenetik negoziazioetan dabilta agintariek. Eraikinaren baldintzak ezaugutu, politikariek ez zuten uste gazteek asko iraugo zutenik eta ez ziren gehiegi arduratu. Baina okupatzaileentzat etxea uste zutena baino baldintza hobeetan zegoen: “Berogailu zentralizatua eta ur beroa dauzka eta ezin digute moztu, bekadun gisa dabilzan zenbait artisten tailerrak ere bertan daudelako. Gu saiatu gara ordaintzen eta behin dirua ere bidali genien, baina hartu izan balute, etxearen okupazioa onartzen dutela adieraziko lukete, eta ez ziguten ordaintzen utzi”.

Bethanien okupatu baino lehen komunikabideetan proiektuaren aldeko lan handia egin zutela dio Janek eta udal ordezkariak ez ziren ados jarri etxea desalojatzeko. Legeak zehazten dituen 48 orduak pasatu ziren eta harrezkero desalojo prozesua asko konplikatu da. Horrez gain, Janek azaldu duenez, 2005eko maiatzean legedi berri bat ezarri zen Berlinen. Auzoetan plebisituak egiteko aukera ematen zuen eta New Yorckeko bizilagunek etxearen pribatizazioaren aurkako plebisitua antolatu zuten. 14.000 sinadura lortu zituzten, eta Udalak onartu egin behar izan zuen. Hala ere, urte bukaerarako, bertako parlamentuak etxearen inguruko erabakia hartu beharko duela dio Janek eta ez da oso baikor agertu. “Berlin dirurik gabe dago eta etxea mantentzeak urtean 800 mila euro inguruko gastua du. Gares-

255.000 etxe huts

Euskal Herriko eskubide sozialen alde diharduen Elkartzen gizarte mugimenduen arabera, Euskal Herrian 255.000 etxe baino gehiago daude hutsik –bigarren etxebizitzak eta etxebizitza hutsak batuta–. Baina azken urteetan %27 hazi da etxebizitzaren kopurua. Biztanleria, berriz, %0,75. Hala ere, 100.000 pertsona baino gehiago dira etxebizitza behar dutenak.

Alokairu soziala eta etxebizitza hutsen erabilera bultzatzeko politikak ez dute indarririk Lurzoruaren Legearen eta Etxebizitza Planaren aurrean. Hori dela eta, Elkartzenen iritziz, 2009ra arteko etxebizitza-planak ez du konponduko beharra duten pertsonen etxebizitza eskuratzeko duten arazoa.

Etxebizitza eskubidea errespetatzen ez den bitartean, okupazioa zilegi dela dio Elkartzenek.

ti iriteten zaie eta saldu egin nahiko dute”. Baina itxaropena ez dutela galdu eta bertan jarraitzeko lanean jarraituko dutela dio.

Okupatutako hiru eredu desberdin dira Birgarakoa, Gasteizkoa eta Alemaniakoa. Hirurek, ordea, egungo gizartearen dagoen bizitza eredu nagusiaz gain, beste batzuk ere badaudela erakusten dute, eta argi utzi nahi izan dute norberaren esku dagoela bakoitzak nahi duen bizimodua aukeratzea. ■

kulturagenda

Irailaren 16tik 30era



Urdaneta kalea, 9 | 20006 donostia

Multimedia erakusketa

Batekmila-Euskal munduak

Ganbaran

Irailaren 19tik azaroaren 17ra

Asteartetik larunbatera zabalik:
10:30-14:00 eta 16:00-20:30

Bisita gidatuak eskugari 667346025
telefonora deituz.

Euskal Kultur Erakundearekin
batera ekoiztua.



Kristobaldegi, 14 | 20014 donostia | www.arteleku.net

Ertz. 8. Nazioarteko Bertze Musiken Jaialdia

Antolatzailea: Ertz Arte Gunea

Kontzertua

Pole Pole zuzenean

Irailak 17. 20:00

Ikastaroa

Bruce McClure

Live cinema: proiektorea sortze tresna modura

Irailak 18-20

Ikastaroa

GNU/Linux sistemara migratzea

Irailak 24-28

Emalea: Gipuzkoako Software Askea Elkarte

